

Gero eta gehiago erabiltzen da *harremandu*. Ontzat eman daiteke?

Erantzuna

Gure ustez, **saihestu egin behar da**, gutxienez hizkuntza-eredu zainduan.

1/ **Harremandu** hitza ez du hiztegi batek ere jasotzen: ez Euskaltzaindiaren Hiztegiak, ez Elhuyar Hiztegiak, ez Labayru Hiztegiak, ez Zehazkik... Zer esanik ez, Orotarikoak ere ez. Hortaz, oso hitz berria dela susmatu dezakegu. Berritasunaren seinale ere, forma aldetik hiru formatan azaltzen dela hitz hori: **harremandu**, **harremanatu** eta **harremaneratu**.

2/ Egia da gero eta presentzia handiagoa duela, batez ere testu instituzionaletan eta euskara “jasoa” (ohartu ironiaz) erabili nahi izaten denetan. Horretaz aparte, erabili izan dute hitza idazle txukun batzuek ere, oso tarteka bada ere. Hauxe aurkitu dugu [Egungo Euskararen Hiztegian](#):

harremandu, harreman(du), harremantzen (ETCn 225 agerraldi; orobat **harremanatu** ETCn 7 agerraldi) da/du *ad* harremanetan egon, lotura izan. Ik [harremanetaratu](#).

Jendearekin **harremantzean**, norberak bere benetako isla aurkitu nahi izaten du. **Eider Rodriguez**
Naturalezaren alde guztiak [...] elkarrekin **harremanaturik** daude milaka harmonia sekreturen bitartez. **Bernardo Atxaga**

Giza esperientziarekin -beldurrarekin, jakinahiarekin- **harremanatuta** dauden pertsonaiez. **Koldo Izagirre**

Kakalardoaren hozkiotsa, gurpilaren intziria, ozen, isil, baina misteriotsuki **harremandua**. **Joxan Elozegi**

Ilargiarekin **harremanduriko** eskultura seriea. **Joxan Elozegi**
Egitura dramatiko soilak dira, garai bateko mitoeekin **harremanatutako** erakus-istorioak agian. **Bernardo Atxaga**

Zomorroaren burrunba, belar ebakiaren hotzikara, bereizia baina nola-hala elkartua; kakalardoaren hozkiotsa, gurpilaren intziria, ozen, isil, baina misteriotsuki **harremandua**. **Anton Garikano**
Munduarekin **harremantzen** dena ez dela intelektu bat (“tabula rasa”), nahimen eta sentimenduzko norbait aktibo baino. **Joxe Azurmendi**

Beste eragileekin **harremantzeko** eskubidea. **Berria - Harian**
Nirekin **harremantzen** den inguru sozialak. **Joxe Azurmendi**

3/ Euskaltzaindiak birritan ematen du hitz jakin horretaz iritzi negatiboa –zeharka bada ere– Euskararen Gramatikan:

- https://www.euskaltzaindia.eu/index.php?option=com_liburuak&ItemId=1765&task=gramatika&lang=eu&kodea=120310&mark=sec12.3.10c

12.3.10j Baina, esan bezala, izena aditz bihurtze hau aski emankorra izanik euskaraz, eta tradizio luzekoa izanik, gainera, baditu mugak, eta ezin da nolana erabili. Hala, *apez* hitzak *apeztu* aditza ematen du, *serora* hitzak *seroratu*, *apezpiku* hitzak *apezpikutu*, *fraide* hitzak *fraidetu*, eta *artzain* izenak *artzaindu* (adibide gutxierekin, zernahi gisaz). Ordea, *moja* izenak ez du **mojatu* ematen, edo *ertzain* izenak **ertzaindu* aditza. Horregatik, **biziki bitxiak gertatzen dira inolako tradiziorik gabeko sortu**

berri diren aditz batzuk: **harremandu**, *sukaldata*, *arrantzatu* (adibide pare bat aurkitu dugu tradizioan), *ehizatu* (gaur egun badira adibideak, baina tradizioan batere ez), *aintzatetsi*, *ahaldundu*... Zail bada ere kontua ongi zedarritzea, bistan da ezin dela prozesua izen guztietara orokortu.

- https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&Itemid=1765&task=gramatika&lang=eu&kodea=0601

Baditugu, azkenik, **kalko hutsez sortuak ere**; gaztelaniazko ereduak kontuan izanik eratu ditugunak. Zaila da horrelakoetan esanahi lexikoa zein den zehaztea. Horien artean ditugu *ezaugarritu*, **harremandu/harremanatu**, *lagindu*, *sukaldata*, *txarangatu* eta horien gisakoak: *Musikari gazte hauek etxean, tabernetan, txosnetan zein gaztetxean urteetan entzundako rock kantu ezagunen artean aukeraketa egin eta "txarangatu" egin dituzte* (I. Barandiaran); *Esaldi bakar batean ezaugarritu beharko balitz sozialismoa egokiago izango litzateke giza askapeneko mugimendu bat bezala deskribatzea* (X. Mendiguren Bereziartu). Badirudi horien ondoan erraz erabil genitzakeela aditz predikatu konplexuak: **harremanak izan**, *laginak hartu*, *ezaugarri izan* eta abar.